

## **Basque - Gogoaren Ona Liburu Santuek - Good Mind Scriptures**

**Lebitarrena 24:12** eta zaintzapean utzi, Jaunak berak erabakia adierazi arte.

**Deuteronomioa 18:6** «Israelgo edozein hiritan bizi den lebitarrak, Jaunak beretzat aukeratuko duen lekura joatea erabakitzen badu,

**Rut 1:18** Rutek bere erabakia harturik zeukala ikusirik, amore eman zuen Noemik.

**1 Kronikak 28:9** «Zu, berriz, Salomon, ene seme hori, saia zaitez zeure aitaren Jainkoa ezagutzen; zerbitzatu bera bihotz osoz eta gogo handiz. Bihotz guztiak aztertzen ditu Jaunak, eta badaki nolakoak diren giza gogoetak. Haren bila ibiltzen bazara, utziko dizu bera aurkitzen; baztertzen baduzu, ordea, betiko arbuiautuko zaitu.

**Nehemias 4:6** Baina haien artean bizi ziren juduak behin eta berriro etorri zitzaizkigun esatera: «Alde guztietatik gure aurka datoz».

**Job 23:13** Baina hura berean tinko: nork eragingo atzera? Zer nahi, hura egiten du.

**Esaera Zaharrak 29:11** Zentzugabeak aske uzten ditu bere grina guztiak, zuhurrak eutsi eta baretzea lortzen.

**Isaias 26:3** Sendo du gogoia; Jauna, bake betea ematen diozu, zuregan baitu konfiantza.

**Markos 5:15** Jesusen ondora iristean, han ikusi zuten deabruduna, eserita, jantzirik eta bere onean, lehen deabru-taldearen menpe zegoen huraxe bera, eta biziki izutu ziren.

**Lukas 8:35** Orduan, zer gertatu ote zen ikustera irten zen jendea. Jesusen ondora iristean, han aurkitu zuten Jesusen oinetan eseria deabruak atera zitzaizkion gizona, jantzirik eta bere onean, eta biziki izutu ziren.

**Eginak 17:11** Bereako juduek, Tesalonikakoak baino jatorragoak izaki eta, gogo biziz hartu zuten mezua; egunero aztertu ohi zituzten Liburu Santuak, gauzak hala ote ziren ikusteko.

**Eginak 20:19** Apaltasun osoz zerbitzatu dut Jauna eta hainbat negar egin juduen azpikeriek sortu dizkidaten probaldiak direla eta.

**Erromatarrei 7:25** Jainkoak, Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. Eskerrak berari! Honela bada, adimenaren aldetik Jainkoaren legea dut zerbitzitzen; gizon ahul naizen aldetik, berriz, bekatuaren legea.

**Erromatarrei 8:6** Giza grinei jarraitzeak heriotzara darama; Espirituari jarraitzeak, berriz, bizitzara eta bakera.

**Erromatarrei 8:27** Eta bihotzak aztertzen dituen Jainkoak ezagutzen du zein den Espirituaren gogo, Espirituak Jainkoaren asmoen erara erregutzen baitu fededunen alde.

**Erromatarrei 11:34** Nork ezagutu du Jaunaren pentsamendua? Nor izan da haren aholkulari?

**Erromatarrei 12:2** Ez egokitu mundu honen iritzietara, eraberri zaitetze baizik, zeuen pentsaera aldatuz; horrela bereizi ahal izango duzue zer den Jainkoak nahi duena, zer den ona, atsegingarri zaiona eta bikaina.

**Erromatarrei 12:16** Bizi zaitetze elkar ongi hartuz; ez izan handinahi, apalen mailako baizik; ez jo zeuen buruak jakintsutzat.

**Erromatarrei 14:5** Batek garrantzi berezia ematen dio egun bati; beste batentzat, berriz, egun guztiak berdinak dira. Joka dezala bakoitzak bere kontzientziaren arabera.

**Erromatarrei 15:6** Horrela, bihotz batez eta aho batez goretsiko duzue Jainkoa, Jesu Kristo gure Jaunaren Aita.

**1 Korintoarrei 1:10** Senideok, Jesu Kristo gure Jaunaren izenean, arren eskatzen dizuet: bat etor zaitetze guztiok eta ez bedi izan zatiketarik zuen artean. Bizi elkar ongi harturik, ikuspegi eta iritzi bat bera duzuela.

**1 Korintoarrei 2:16** Nork ezagutu du Jaunaren pentsamendua? Nork irakats diezaioke? Guk, ordea, Kristoren pentsamendua dugu.

**2 Korintoarrei 7:7** Eta ez bakarrik haren etorrerarekin, baita zuengandik ekarri zizkidan berri pozgarriekin ere: berak jakinarazi zizkidan ni ikusteko duzuen irrika, zuen damu-negarra eta nirekiko maitasuna. Horrek oraindik gehiago poztu ninduen.

**2 Korintoarrei 8:12** Izan ere, borondatea duenari, eman dezakeena onartzen zaio, ez zaio besterik eskatzen.

**2 Korintoarrei 9:2** Ezaguna dut zuen borondate ona, eta horrek harro ibilarazten nau Mazedoniakoen aurrean: Akaiakoek prestakizunak iaztik eginak dituztela esaten diet, eta zuen arreta bizia bizkorgarri gertatzen da gehientzat.

**2 Korintoarrei 13:11** Azkenik, senideok, poz zaitetze, saiatu bete-beteak izaten eta izan adore. Bizi zaitetze elkar ongi hartuz eta bakean. Eta maitasunaren eta bakearen Jainkoa zuekin izango da.

**Efesoarrei 4:23** eta, bestetik, zeuen gogo-bihotzak berritu

**Filipoarrei 2:2** bete nazazue pozez, denok iritzi eta sentiera bereko izanez, elkar maitatuz eta ongi hartuz.

**Filipoarrei 2:3** Ez egin deus ere norgehiagokeriaz edota harrokeriaz, apaltasunez baizik, besteak norbera baino hobeak direla pentsatuz;

**Filipoarrei 4:2 Ebodia eta Sintikeri, Jaunarengatik, bat etor daitezela eskatzen diet.**

**Filipoarrei 4:7 Eta guk pentsa dezakeguna baino handiago den Jainkoaren bakeak zainduko ditu zuen gogo-bihotzak Kristo Jesusen bidez.**

**Kolosarrei 3:12 Jainkoak maitatu eta bere herri santu izateko aukeratu zaituztenez gero, jantz zaitetze bihozberatasunez, ontasunez, apaltasunez, otzantasunez, pazientziaz.**

**2 Tesalonikarrei 2:2 ez dezazuela arinegi burua gal, ezta kezkatu ere, Jaunaren eguna gainean duzuela dioen goi-agerpen edo adierazpen edo guk egina omen den gutunen bat dela eta.**

**2 Timoteori 1:7 Jainkoak ez baitigu beldurri egiten gaituen espiritua eman, indarra eta maitasuna ematen eta geure buruaren jabe egiten gaituen espiritua baizik.**

**Titori 2:6 Aholkatu mutil gazteak ere, zentzudun izan daitezen,**

**Hebrearrei 8:10 Hona hemen etorkizunean Israelekin egingo dudan ituna: Buruan ezarriko dizkiet neure legeak, bihotzean idatziko; ni beraien Jainko izango naiz, eta haiek nire herri.**

**1 Pedro 1:13 Horregatik, prestatu zeuen gogo zerbizurako eta bizi neurritasunez. Jar ezazue zeuen itxaropen osoa Jesu Kristoren agerpenak ekarriko dizuen dohaineen.**

**1 Pedro 5:2 larra ezazue Jainkoak zuen esku jarri duen artaldea; zaindu, ez gogoz kontra, gogo onez baizik, Jainkoak nahi bezala; ez irabazi zikinari begira, bihotz-zabaltasunez baizik;**

**2 Pedro 3:1 Ene maiteok, egiten dizuedan bigarren gutuna dut hau. Eta biotan zenbait gauza gogoratuz bizkortu nahi izan zaituztet, zuzen irizteko gai izan zaitetzen.**

**Apokalipsia 17:9 Buruargitasuna behar da hemen. Zazpi buruak, emakumea gainean eseria dagoen zazpi muinoak dira; zazpi errege ere esan nahi dute:**

**Pastor T. John Franklin  
Church of Salvation, Healing, and Deliverance  
COS-HAD.org**